



## EUSKALDUNTASUNA GORDETAKO GURASOAK DAUKIEN ZEREGIÑA

Sarri ta askotan entzun izan dogu euskal-zale askoren artean euskerea gordetako au edo bestea egin bear dala. Izan be, egin bear direala esaten direan gauzak ondo dagoz. Baiña sustraira jo bear geunke, etxeko sukaldeetara, bertan dagoelako izkuntza biziaren zimendua eta oiñarria. Eta argi ikusiko geunke urietan bizi garean euskaldun usko eta asko naikoa zabarra; eta itxiak gareala orretan. Eta, alan da guztiz be, itxiak izanagaitik, beste guztiak baiño euskalzaleago agertu deadar egiñik eta Euskalerriko silborra bagiña legez, eta euskalzale izatea euskalduntasunaren gaiñetik dagoen ofizio bat balitz legez.

Bide ori, beste barik, ezta euskerearentzat ona. Euskereak sukaldeetako beroa bear dau, aín zaratatsua expaldin bada be. Sukaldeko bero leguna eta irilla.

Etxean amaren maitasunagaz batera egi-ten dan berbeak urre-gorriaren balioa dauko eta bertara ezin sartu leiteke ezain lege eta indar. Negar egingo dogu, bear-bada, euskereak egoera negargarrietatik igaro bear izan dauelako eta kontra egin jakolako gogor. Baiña guzti ori egia bada be, ezin ukatu lei norberaren etxean ezin sartu leiteke-

la iñor bertako ordurik barrukoenetan izkuntzea galerazoten. Eta orretan zabarkeri andia dago gure artean. Ezin ukatu.

Benetan maite badogu gure izkuntzea ezta naikoa indar andiagaz deadar egin daigun jentearen aurrean euskaldunak gareala, arrokeri andi bat balitz legez, eta gero gure bizimodua deadarragaz bardindu ez. Alperrik da euskalduntasuna moda uts bat legez artu daigun. Euskalduntasunak sakonagoa izan bear dau eta euskaldun zintzoetan alan da. Bizimodu eta izakera baten seiñalea. Izakera berezi bat. Tratu fiña ia dotorea. Ganberriemorik eza. Gugaz bizi direan eta gure artean jaio direan erdaldun arrunt askok eztaukan fiñezia. Bertsolaria; erakutsi deuskuen gizontasuna eta buru landua. Eta berezko beste birtuterik asko. Eta berezko birtuteak daukazanak, erlejiñoak erakusten deuskuzan berezkoen-gaiñekoak be erraz izaten ditu, denpora asko ezala Cordoba-n bizi dan abade euskaldun batek esaten euskunez.

Zaindu daigun bada, gure etxe barrutik asita, Euskalerrian daukagun ondasun balio-tsu au, eta ikasi daigun bear dan legez preziatzen eta maitatzen.

¡Seme-alabatxoeri euskerea maitatzen irakatsi!

# JOHN KENNEDY

Ipar-Ameriketako urrengo presidentea katolikoa izango ete da? Ona aspalditxotik egiten dan itauna. Alan izatekotan Ipar-Ameriketako historia guztian lenengoa izango da.

Aurten egingo dira lau urterik lau urtera egiten direan elekziñoak. Elekziño onen arrazoia Estaduko kargurik gorenengorako gizon bat aukeratzea izaten da.

Ipar-Ameriketan agintzen daberen partidu biak, errepublikanuak eta demokratikoak, batek be ez dau oraindiño kandidatorik izentau azkenengo elekziñoetara eroateko. Baiña aspalditik izen bat entzuten gagoz, larregi entzuten bera autatua ez izateko.

Gaztea dozu, galanta, aberatsa, jakintsua eta azkenengo gerran izen aundia artu ebana. Eta geiago; Ameriketan asko esan gura dauan gauza bat dauko bere alde: azkeneraiño ta indar guztiakin lagunduko deusan familia bat. Gaur egunean Massachusetts'go senadorea da eta 43 urte daukoz. Bere kontra katolikoa izatea besterik ez dauko, Ameriketako oiturea presidentea protestantea izatea izan da gaur arte-ta. Bein bakarrik ausartu dira katolikoak kargu orretara; 1928' garrenean eta austuak izan zirean. Baiña gaur gauzak asko aldatu dira. Eta oraintsu egin dan enkuesta batean eunetik 63 etziran kontrakoak.

Nor dogun gure Kennedy? Benetan Ameriketako familiko semea auxe. Bere aita, 1912'an ezkondu zanean, bere seme bako txari milloa bat dolar emotea erabagi eban. Bederatzi seme izan zituan, lau mutil eta bost neska. Baiña zeatz bete eban bere erabagia. Kennedy etxekoen auzokoak diñoen famili aretan etzala iñoiz atsedunik artzen. Gau ta egun, negu ta uda, bearra zan ango atsedena. Zarrenetik asi ta txikienera, norgeiagoka eten bagean ari dira; bai jolas ta deportetean, bai ikasten, bai etxeko beartetan.

John Kennedy azken gerrako gizon aundi bat izan dala esan dogu. Luzeegi litzake bere eginkizun guztiak aitatzea. Itxas-gizona zan, baiña arerioak bere barkua ondartzean lepoko azurrean zaurituta gelditu. Ez

eban itxi orregaitik bere gizon guztiak banan banan legorrera atara eta bako txari bear ebana emon barik. Zauri au dala-ta itxaso itxi bear izan eban. Periodista asi zan gerreak irauin bitartean. Baiña bakea eterritakoan diputadu legez presentau zan Boston'go kolejiotan, eta aukeratua izan zan 1946'an. Eta sei urte geroago, naiz ta gazteegi izan, senadura presentau zan.

Oraintsu, 37 urte gaz, otu jakon ezkontzea. Ordurarte ez eban astirik izan. Eta orain be suertea izan gure gizonak! Jacqueline Bouvier, bere emaztea, Frantziatik arantzta joandako multimillonario baten alaba da. Ez eban pentsau iñoiz be Kennedyk serio berba egiten eutsanik. Berak diño: «Sarritan ez genduan aste osoetan be alkar ikusten. Iñork pentsatuko ez eban lekue-tatik eta uste bako orduetan deituten eustan telefonoz andik amabostera ain ziñetara joan gura ete neban ala ez. Telefonoz eskatu eustan beragaz ezkondu gura ete neban ala ez itza be. Ez dakit nundik be ain arrituta itxi ninduan!»

Baiña ezan dana ain ondo joan John Kennedy'n bizitzan. Etxakozan falta egun garratz eta mingotzak, eta orduantxe erakutsi eban bere indar ta kemen aundia. 1954'an antxiñako lepoko azurreko zauriak momentu latzak igaro eragin eutsazan, erio-tza-larrian ipiñi arte. Klinika batera eroan bear izan eben operetako. Medikuen esanetara, aritxo batetik zintzilika egoan bere bizitzea. Eunekoa lau probabilidade bakarrik eukozan bizirik urtetako, baiña berak kemenik aundienagaz artu eban operaziñoa eta ondo urten be.

Ordutik ona, gau ta egun lan eta lan ari da urrean dagozan elekziñoetan agertuteko. Diñoenez bere kontrako izango dan Nixon'ek baiño probabilidade geiago dauko.

Nor izango? Ameriketako erriak edertu diñoana, geien balio dauana. Gure John Kennedy katolikoa izango? Itxaropen aundiak dagoz, baiña, Jaungoikoak gura dauana izango da, Ameriketako erri aundiak geien bear dauana. Ez da gero kargu txikia artu bear dauana! Ormaetxe

¡Al dozun tokirik geienetan berba egizue euskeraz!

# Neska mutillak alkarregaz berbetan

*Nolakoa gura dozue izatea gura zeunkeen neskatoa?*

*ANAITASUNA* deritzan orritxoan, lope egin dot itaun-preguntza onegaz eta erantzuna emotera noa zintzo-zintzo eta zatika-zatika.

*Nolakoa?*

*Osasuntsua. Osasun sendoa, etzeko ardua guztietan laguntzeko eta amatasun zeregiñak zietz betetako. Osasuna, batez be seme-alaba ederren ama izateko.*

*Ederra. Edertasun ori jatorrizkoa izan daitela. Ez espillu aurrian pintura larregi eta autzagaz egindaikoa. Baita edertasun onek euki daiala biotz aundi bat. Alperrikoak dira, begi ederrak, arpegi polita eta irribarre gozoa, biotz ustela badago barruan eta buru ariña sorbalda ganian.*

*Andratasuna. Eta ez dira andratasunen ezaugarriak, zigarroak fumetia, gizon prakakaz jartia eta abar. Izan daitela oso-osorik andrazkoa. Oso txarto ikusten dogu andrazkoa gizon mallan jartzea.*

*Zentzunduna. Buru zentzu bakoa, eta argi bakoa izatea eragozpen aundiak dira, etzeko erregiñea izateko.*

*Begiratua. Eta gauza guztietan. Alperriko gastuak alde batera isten dakiena. Begiratua, diñot, eta ez diru zalea.*

*Garbitasuna. Auxe bai neskatoaren usain gozoko loratzua. Garbia gorputz eta arimaz. Loikeria, benetako maitasunaren eragozpena dalako.*

*Jaungoiko-zaletasuna. Auxe bai edertasun guztitarikoen egiazko oñarria. Neskato Jaungoiko zaleak gura doguz. Eta Jaungoiko-zaletasun zintzoa, sustraiduna. Ondo jakinik Jaungoiko erakutsiak eta bere agindu santuak eta ezkontzako ardurak, zeregiñak eta eginbearrak.*

*Jaungoiko zalea dan neskatoa sinismenduna izango da; eta sinismen argitan, bai emazte ona eta bai ana ona.*

Errigoitiko gazte bat

## HUMOREAREN TXOKOA

### Gazterik ilteko modua

1. Gauzarik aurrenengoa zure lana da. Bestelako ardurak bigarren maillan dagoz.
2. Gaberarte lan egin. Baita sapatu, domeka eta jai egunetan.
3. Gabaz lantegira joaten ezareanean eroaizuz etxera paperak lan egiteko. Olan, egunez izan dozuzan estropazu eta buruausteei begirada bat emon aal izateko aukerea izango dozu.
4. Ez esan iñoiz «czetz» eskabide bateri. Beti esan «baietz».
5. Ontzat artu batzar, bazkari eta olangoetara joateko artzen dozuzan deiak.
6. Armosuko denporea ez alperrik galdu... ori da ordurik onena negozioen gainean berba egiteko.
7. Beti gogoan izan pascoa, zinea, irakurtea eta olango gauzak dirua eta denporea alperrik galtzea dala.
8. Siñistuta egon bakaziñoak artzea txarto ikusia dala.
9. Ez itxi iñoiz zure responsabilidadadeak iñoren kargu. Artu guztiak zure lepoan.
10. Zure lanak bidajeak egitea eskatuten badeutsu, egunez lan egin eta gabaz ibili. Orretara, urrengo eguneko goxaldea libre izango dozu lanean jarraituteko.

¡Euskaldun zintzoa izan!

# BILBAO-AUSTRALIA

Maiatza 5, 1959. Egun argia ta ederra. Arratsaldeko iruretan MONTSERRAT-ek askatu zituan bere txikotak Bilboko portuan, zeztazgo, Santurtze-ko moillean, eta, itxaso zabaleratu zanean, Vigo-ra ipiñi eban musturra, andik Atenas-era ta gero Australia-ra itxasbidea egiteko. Eunda irurogeta amar mutil gazte zirean asmo orretan ontziratu zireanak. Guztiak gure lau Provintzietan batuak. Banakaren batzuk bazirean Espainia-ko beste Provintzietarik, baiña onek bere Gipazkean edo Bizkeian zirean langille, ta emengotuta egozan. Guztiak jasekoak. Gorputz eta arimako osasunaren jaube bircala zirudien. Arpegian ikusten jaken barruko poza, alako naibageixuren bategaz naustean. Zegaitik ezin esan, ziur beintzat. Noizbait etxaldera biurtzeko itxaropena? Maitzagaz amesetan? Guraso zaarren skordua? Aurki dana batera. Arcek gazteak illunabarrean Euskalerriko mendiak estaltzen asi zireanean sentimentu andia agertu eben, eta ez bateri bakarrik negar malkoak jausten asi jakezan marrailetan beera.

## *Barruko, Barrua, Barruratu...*

Itxasontzietan *barrua* izena ontziari berari deritxo, gizonen euren, edo gizonen gauzen, egon-lekua dan aldetik, eta berbatxu ori beste esakera txabulin askoren jatorria da. Ortik datoz *barruko* gizonak: tripulaziñoa; janedanak *barruratu*; Montserrat-en *barruan*; Queen Elizabeth *barruan*; eta beste milla esakera gure itxas-errietan ezpan gaztietan bizkor bizi direanak.

Bein da betiko jakin ba, irakurle, onelango herbakaz zer esan gura dogun, eta aberastu zure Euskerea.

## *Barruko bizitzea*

Gugaz etorren Don Diego Bedia Trucha critxon jann bat, Santander-en jaio ta bizi dana. Zaldun argia ta biotz onekoa, Euskaldunen adiskidea, Madrilko Gobernuaren izonean etorren gure mutileri Bilbo-Fremantle, Perth. (Australia) itxasbidean gidari. Egia esan, gure gazte onek Australia-

lia-ko Gobernuak billatuta edo, deituta edo joiazan. Baiña, nok daki, ba? Erbesteko nazioetan inmigraziñoako legeak zorroztxualizaten dira, eta Australia-koak ez dira naizaienak, batez bere osasunagazko artuemetan. Orregaitik, ba, gisa onetako bide-tarik sortu leitekezan disgustuetan argitze-lle, eta Australia-ko Gobernuari, premiabaldin bazan, arpegi emoteko etorren Bedia jauza.

Berak eta neuk, bion artean, atondu gendun barruan mutilen eguneroko programea. Zortziretan mezea, erdietan armusua, bederatzietan ingeles eskolea (lenengo saildea) Australiana-maistra bategaz. Amaiketan bigarren saindea, eguerdiostean laureta irugarrena. Euren orduetan bazkaria ta aparia.

Illunabartxuan errosarioa ta Salve-a kurberta ganeko leku aizetsu, zabal eta argi-enean. Auxe zan nik egin, eta Bedia jaun-erakutsi neutsana. Dana ontzat emonda, pitin bat berekitan pentsetan egonda, esaeustan: Gauza bat egin daigun: Salve-areostean dozenerditxu berba esango neuskienek Australia-n eroan bear daben bizimoduaren ganean, ango Geografia ta Historia ta abar, eta gero guztiok abestu daiguzuen *Boga, boga*, zuen kanta eder ori. Zederitxazu?

—Zer deristan? Ez esan bi bidar, ondo dogo-ta, alantxe egin daigun.

## *Gizona uretara*

Onetan giñarduela zarata batzuk asi gñean entzuten barruan. Zer ete zan?

Kantauria itxasoa barc egoan gure itxasorrate egun aretan. Eta mutilen gogoak bere baretu zireala esan eikean. Baiña eta Naparru erriberako mutil pillo bat auzubizian etorren, nok daki zeren ganean. Alar-ko baten Peralta-ko gazte batek, burua zere-ro naastuta, itsumustuan, iñor konturatu baiño lecnago, burua bota eban uretara. Onelakoetan oi dan legez, norbaitek auzubota eban alarma deadarra: *Gizona uretara!* (*¡Hombre al agua!*).


¡Kristiñau-dotriñea beti gogoan izan!

Zorionez, ugerlari ona zan mutilla, ta berezko joerak eraginda, uger ikusten zan ur azalean. Bitartean kapitanak, jazo zana jakin baizen laster, agindu eban ontzia atzekoz aurrera ipinteko, —au da arku oso bat, «U» maiuskula bat egin erazoteko— egoki zan aldera, elizak mutilla bere jirabietan atrapa ez cian. Txalupa salbabide bat jetsi zan uretara, eta ondoan euki ebanean, uretarik atarata, barruratu genduan gixajoa.

zanetarako lain jakingo dabe, mutil leberak dira-ta. *They are clever.*

### *Salve, Regina! Boga Boga!*

Egitarauaren parterik ikus eta entzungarriena *Errosarioa, Salve-a ta Boga boga!* Areen mutillen jasa, areen fedea ta deboziñoa Errosario santuaren Andra Maria-Santa Marietan! Letaiñiaren *Ora pro nobis*-etan! Arimearen begiakaz oneek gauzok begiratu



Gorputzaren aldetik osasun onean etorren, gogoaren aldetik ez ain ondo. Biaramonean Vigo-tik Peralta-ra bialdu genduan Kurtze Gorria-ren bitartez.

*Good morning, How are you?*

Or, goratxuago, nun eten dogu aria?

A, bai. Bedia jaunak esan eustan: Zer deritxazu egitarauari?

Zer deristan? —nik erantzun— ez esan bi bidar, ondo, benetan ondo dago-ta.

Alantxe asi genduan eta alantxe egin Australia-rate gnztian. Gatx egiten jaken, egia esan bear da-ta, Ingeles eskolea, baiña ikasi eben herbakera batzuk urratuten, eta egun baterik bestera entzuten jakezan euren aultutan: *good morning, how are you? English is very difficult, okei* eta beste asko, ez batak besteari barre egin barik. Onezkerro, bai ziur, geiago ez bada, euren bearrir-

ezkero, biotza nasaitu egiten jako bateri, fedea bizkortu, deboziñoa sendotu. Nik neurekitan pentsetan neban euren aingeru jagoleak pozarren ibilliko zireala zerura ta andik Montserrat-era ain otoitz beroak igitoten.

Errosario ostean *Salve Regina*, Gregoriano doiñuan, eta saindaka erderazko *Dios te salve, Reina y Madre*, bata zein bestea ezin obeto. Nun ikasiak zirean nik ezin esan, baiña guztiak kantetan eben batera, fintasunik andiencan, gregorianistatik zorrotzenak atxakiarik ez topetako moduan.

Onen ostean Bedia-ren itzaldia. Azkenean *Boga boga*-ren durundi sendoak itxasoari berari ataraten eutsan oiartzuna, batez berebular auspoak sano nasaituta, azkenengo *Boga!!!* jaurtiten ebenean, eta silabak luzatuz amaituteko esaten ebenean *Maaariiiiñeeclaaa.*

*Aingeru*

Baserria asko aberastu leiteke komeni direan gauzak egiñik

# ''Nik laguntzen dodan mutilla''

Ez gero esan gaurko neskatillari: «zure nobiyoa». Beingoan zuzenduko deutsue: «Ezta nire nobiyoa; nik laguntzen dodan mutilla baiño».

Eta geienetan arrazoia daukie. Domeka arratsaldeetan, edo sarritxoago, neskatilla askogaz ikusten dozuen mutilla, «eurak laguntzen daben mutilla» besterik ezta.

Eta ez natorizue ori pekatu dala esatera. Nik beintzat, oso ondo deritxat lagundute orreri. Bata besteen eretxiak ezagutzeko era ona da, oso ona. Ia gauza bardiñak gizonetakoak eta andrazkoak zelan ikusten dabean konturatzeke be era ederra. Eta alkar ezagutulea gauza probetxuzkoa da.

Baiña kontuz gure egintza guztiak edertasun eta argiz jaxten dituzan «maitasunagaz». Eztaukagu eskubiderik «guk laguntzen dogun mutillaren» maitasun-iturritik edozelan edateko.

Esan dotana: mutillari laguntzea, alkar ezagututeko era ona deritxat. Zeuon, neskatillon, sentimentuak be asko irabaziko dabe. Mutillekin zelan kompondu bear dan ikasteko, euren usteak eta eretxiak ezagutzea da onena.

Eta ganera larrosaz beteriko bide bat legetxe dozue.

Baiña zoritxarrez arantzak be badira bide orretan. Arriskuak be badaukoz. Eta arantza orrek zapaldu egin bear dira kontuz-kontuz, lora utsezko bidetik ibilli gura badozue.

Arantzarik zorrotzera irudimena dabe andrazkoak. Sarritan biotza bera baiño be ariño dabil imajinaziñoa. Eta, ziur-ziur, zure mutil-lagunarena baiño zorrotzagoa da. Eta zer? Ba beingoan, arantza ori kiñeka asiko jatzu zeure barruan, zure mutil ori: «zelakoa dan», «zelakoa uste daben dala», «nolakoa izatea gura zeunkean», «zeure amesak» ta abar.

Ezin zeinke ukatu olako kiñadak miñ asko sortzen dabela zuen barruan. Eta zuen poz

guztia zimelduta gelditzen da eta zorionaren iturria agortu-ta. Eta bere sasoiari loratuko dan maitasun ederrari ezer ostuteko eskubiderik eztaukazue. Apurtxo bat be ez. «Zuek laguntzen dozuen mutillak» txutxi-mutxiki atara eragiten deutsuezan negar malkoak be ez. Gorde zintzo eta indartsu zuen maitasun-iturriko ur gozoa, sasoi etorri arte.

Beste arrisku bat be bada: lentroago esan deutsuedana: eztaukazue mutillaren barruko sentimentuakaz olgetan ibilteko eskubiderik. Ori gauza santua da. Neskatillak —andrazko guztiak legez— gizonetakoaren biotzetik itugin bat ataraten dabenean arrotu egiten dira. Baiña ori ezta zuzena. Zeuon egin bearrari cutsi bear deutsazue. Gizonari lagunduteko, berari indarra emoteko, egin zinduezan Jainkoak. Eta gizona zeuon olgeta-tresna bat biurtzea, Jainkoaren borondatek urrundutea izango litzake. Zuen mutillari benetan lagundu bear deutsazue, onagoa ta zuzenagoa izaten lagundu bear deutsazue.

«Zuek laguntzen dozuen mutillagaz» ibilteak arriskuak badaukoz, eta zuur ibiltzen ezpazarie estropozu bat baiño geiago izango dozue.

Aurrerantzean be itxaron pozarren, atezutik begira, «zuek laguntzen dozuen mutilla» noiz etorriko. Izan atsegiñez, eta ikasi sakrifizio-zaleak izaten, lagunduten, norbera eretxiak ukatzen, ixiltzen... Zaindu zeuon indar guztiakaz neskatilla bateri zor jakos begiramena. Ez galdu zuen poza, eta erein alkarrenganaiko errenkurea ta errespetoa. Lortu, apurka-apurka, sakrifizio-maitasuna. Arrokeriak baiño indar geiago izan daita zuen biotzean sakrifizio-maitasunak.

Eta bide orretan —arantza gabeko bide orretan— joan zeintekiez pozarren: «zuek laguntzen dozuen mutillagaz».

«Vida Nueva'tik»  
eratua.

J. K. Guarrotsena

Zure errian misiñoak euskeraz egiten eypadira parroku  
jaunari eskatu

# Erloju barria

Pozik etxeratu zan ETXEZARRE'ko Josanton, astelen arratsean, erloju edertxua eta merke erosi eutsala Gernika'ko merkaturan Leon Salvador eritxon gizon baltz. txarlatan areri-ta.

Leon Salvador au, oso ezaguna zan Euskalerrri guztiko eta baita kanpoko feri eta merkatu guztietan be, eta zarata, didar eta garraxi artean, bere inguruan baserritar gizonak hiltzen mutilla zan gerol... Arrezkero izan diran txarlatan guztiak arexen esakera, egikera eta saltzalle-tayua'ri antza-emon nairik beti ikusi izan dituguz...

Eguraldi otza ba'zan, an atarako zituzan Palentziatik ber-berak —ala ifioan— ekarritako manta onenak; curia asten ba'zan, barriz, an agertuko zituzan, botoatxu bateri emonda, berez idigiten ziran aterki, sekula, zaparrada andiak izanarren, urik igaroten etxakienak; eta jbatez bere! berari entzute geyen emon eutseen sakel-erlojuak, Suiza'ko fabrika andienian killoka erositako «Roskoff Patent primera» eritxien, orduari famatsuak...

Aitatu dogun astelen arratsalde atan be, ja zan erloju saltzea! Bakotxa ogerleko baten... eskuetatik kentzen eutsiezan...

ETXEZARRE'ko Josanton'eri poza, baña, laster ihundu eta otzitu jakon... Martizen goizian oetik jagi zanian. Ez eban ba, bere erloju ederra, geratuta idoro?... ¡¡Olakorik!!

—Auxe be bada, ba —iñuan erdi-bere-kautan—. Atzo arratsaldian erosi ta, ara emen, gaur, ogetalan ordu baño lenago, neure erlojua to-ton egin da...» «Datorren astelenian Fernandez erlojeruagana eroan barko juat, besterik ezian...».

Eta esan da egin, astelena eldu zanian, an joan zan gure gizona Gernika'ra sakelian erloju geldia ebalu. Baña, edo Fernandez etxian ezegoalako, edo geurian etxeko zalako, Atxirika'ren sastreian sartu zan...

—Zer dakak, Josanton?...

—¡Zer ekarko dot ba. Ara: Gaur zortzi

artu neutsan erloju auxe, Leon Salvador dalako orreri, eta astearte goizian geldituta egoan, eta zartadaka erabilli dodan arren, eztau mobidu gura...

Erlojuaren geixua zein zan, laster igarri eban dendari biurri arek, eta esan eutsan:

—Gauza andirik etxok urrean, eta itxik berton, Fernandez'eri eroan barik, eta astelenian etor bere eske...

—Erloju konpontzalle bere ba'zara zeu ala?...

—Etor i astelenian eta ikusikok...

Baserritarak dendatik urten ebaneko, Tomas'ek erlojuari kuerdia emon eutsan eta orman eukan untze txiki batetik eskegi eban...

Urrengo astelenian, emen dogu Josanton barrero bere:

—¡Eup! Arratsalde on... Da, konpondu dozu neure erloju ori, ala?

—Bai, or daukok untze orretan dingillizka. —Eta Josanton'en eskuetan ipiñiaz esan eutsan:

—Eta ara: gauero, ogera orduan, txirrinka erroedatxu oneri batera eta bestera polito-polito, eragingo deutsak... eta ikusikok zeederto dabilkan...

—Ondo dago. Da zeuria zenbat da, ba?

—Aspaldi guztiko adiskide eta dendako bezeru be ba'az da... euretzat ogerlekotxu bat, baña ez...

—¡Errekontxo! Ez gitxi be, erosi bere ogerlekoan egiau neban-da... Da zer euki dau ba?

—¡Zer euki!? Egoadi eu bere zortzi egunian ezer jan ta ezer edan barik eta ikusikok zer jazoten jakan...

*«Errotarria bear-bearra*

*arto-garia eioteko.*

*Txirringatxua bear emen be*

*ze-ordu dan jakiteko».*

BELU

Bertsolariak dira gure errian daukagun aberastasunik  
aundienetako

# Gorka Aulestia abade barriari bere lenengo meza egunian

Liborio Urrutia'k

1

Gaurko egunetik gelditu zara  
Kristoren apaiz egiña  
Amabi urte luza onetan  
Egin dezu alegiña  
Ondik aurrera guri irakasten  
Izango da zure ekiña  
Gure animak salbatutzeko  
Bada zerbaiten premiña.

2

Gaztetatikan estudiora  
Zu egin ziñan saltatu  
Ta bide ortatik zintzo ta leial  
Beti egin dezu jarraitu  
Bide oberik mundu onetan  
Ezin leiteke billatu  
Inbiriz gaude zure bidetan  
Ezin geintelako sartu.

3

Apaiz maitea zabal itzazu  
Erlejiñoeko egiak  
Bide ortatik galdu ditezen  
Mundu ontako etsaiak  
Gure erri eta erbeste daude  
Anima txarrez josiak  
Ez diralako gogoz entzuten  
Kristoren irakatsiak.

4

Griñ txarrik bada gure errietan  
Baita alkar ikusi eziña  
Moskorrerako erraxtasunaz  
Birau oitura zikiña,  
Txarkeri oiek urrundutzeko  
Egingo dezu alegiña  
Gure Jainkuak orretarako  
Pasatu izan zuan miña.

5

Gure lurretan izaten dira  
Naigabe negar samiñak  
Adan ta Ebaren jatorriz datoz  
Oik dira gauza jakiñak  
Norbera baño abillagorik  
Iñola ikusi eziñak  
Alkar arrotzen egite itugu  
Mundu ontan alegiñak.

6

Ikusirikan lur gaiñ onetan  
Ezin gerala kabitu  
Zerbait guztiok Jaunarengana  
Biar genduke segitu,  
Euskera argiz mintzatutzia  
Nik ala egin det pentsatu  
Gaur egunian kristau zuzenik  
Ezin degula billatu.

7

Mundu ontara gu ez gerade  
Betirako ekarriak  
Orregaitikan egon gaitezen  
Jaunarengana jarriak  
Gure fedeak indartutzeko  
Zaudete onera etorriak  
Bide ortatik zabaldutzeko  
Guri zeruko atiak.

8

Mundu onetan ezin bizi ta  
Ez degu juan nai bestera  
Jaunan aurrian ongi agertzeko  
Orain daukagu aukera  
Orretarako jarraitu daigun  
Apaizaren esanera  
Ezpagerade kanbiatutzen  
Galduek izango gera.

Beste izkuntzak ikastea ona da, baiña norberarena  
ezta aiztu bear